

DIGLOSLIA: HORRA HOR ARRISKUA

Aurreko astekoari jarraituz, hona Txillardegik diglosiari buruz egin duen lanaren bigarren zatia.

DIGLOSIAREN KONTRA: NORMALKUNTZA

Soziolinguistikan "normalkuntza" deritza ("normalización/normalisation") diglosiaren kontrako jokabideari.

Eta normalkuntza horrek bi izari edo alor ditu:

- 1/ Hizkuntzaren mailakoa.
- 2/ Gizartearen beraren mailakoa.

Hizkuntzaren normalkuntza

Hizkuntza batek bere betekizun nagusia beteko badu, ELKARRERKIN HITZEGITEKO TRESNA APROPOSA izan behar du.

EUSKARA BATUA

Lehengo mendeetan gizona eskualde txiki batetik at bakanka baizik irteten ez bazen ere, gaur gizona ez da, lehen bezala, nor bere eskualdean edo inguruan bizi, inoiz kanpora irten gabe. Gaur jendea mugitu egiten da batera eta bestera.

Lehen, beraz, gizarte-mota hartan, eskualdeko herrikideekin ez besterekin mintzatzeko eskualdeko dialektoa aski bazuen ere, gaur eskualdetik at ibiltzen da, eta "mass media" delakoan bitartez harreman hestua du urrungo herrikideekin. Hitz batez, haren bizi-ingu-

rua zabaldu egin da.

Gure Euskal Herrian, bereziki, Euskadi osoa bihurtu da gure bizi-eskualde; eta arrazoin guztiek batera honetara behartzen gaituzte; euskara mota BAKAR bat behar dugu. Ziberutar batek eta bizkaitar batek, elkar ulertu beharrez, erdarara jo behar badute, DIGLOSLIA BETEAN jarraituko dugu. Euskarak ez du balio izango gizarte-mailan erabilia izateko; eta baztertuta, HILA alegia, izango da.

EUSKARA BATUARI, beraz, BAI ETA BAI.

Nola batuko? Euskalki guztiak kontutan hartuz, eta denen arteko biderik egokiena arretaz bilatuz. Batasun-lan TEKNIKOKO hau, euskararen TEKNIKOEi dagokie, eta ez beren euskalkiaz besterik ez dakitenei. Honetan edo hartan kritikagarrri eta hobegarri izan badaiteke ere, Euskara Batua bideraturik dago Euskaltzaindiaren gidaritzapean. Oraindik ere euskalkiak proposatzen dituenak, ez bide du hizkuntzaren arazoa inoiz aztertu. Bizkaian batez ere behar diren erabaki bereziak hartuz, hautabidea hau da: EUSKARA BATUA ALA ERDARA BATUA. Euskara Batua ala euskalkiak proposatzeak ez du funtsik.

Euskara eraberritua

Hizkuntza, tresna BALIAGARRIA ETA ZEHATZA izango bada (eta euskara ere, oraintsu arte, tresna zehatza izan da erabiltzen zen alorretan: nekazaritza, arrantza, burdigintza), gaurko hiztunen zerbitzuko jarri behar da. Mitxelenak oso bidez esan ohi duen bezala: "Xenpelar ene herrikideak nik baino askoz hobeki zekien euskaraz, jakina; baina haren hizkuntzak ez dit balio".

GAURKO EUSKAL MUNDUAN ERABILTZEKO hizkera behar dugu; eta XIX. mendera arte izan zuen ZEHATZASUNA txertatu behar diogu, horretarako GAURKOTUZ. Teknikazko hiztegiak prestatu behar dira, beraz; eta soziologiakoak, eta linguistikazkoak, eta administraziozkoak, eta kaletar munduari dagozkionak oro. Hitz batez: euskara, bere sustraian noski, ERABERRITU egin behar da, modernizatu gaurkotu.

Garo-usaina zerion euskara zaharrari. Gaur, zoritxarrez, menturaz, makina-usaina erantsi zaio. Gure arbasoak garo-usainean bizi baitziren, eta gu makina-usainetan. Bestela ez gara DIGLOSI-EGOERATIK irtengo.

Lan hau ere, noski, lan TEKNIKOKO da; eta euskaltzale teknikoek burutu behar dute (Elhuyar, Uzei, hasiak dira) Euskaltzaindiaren gidaritzapean.

GIZARTEAREN NORMALKUNTZA

Hizkuntzaren normalkuntza euskaltzale teknikoan lana den bezalaxe, gizartearen normalkuntza eginbide politikoa da. Alegia: EUSKAL INSTITUZIOEN ALDEKO BURRUKA GISA.

DIGLOSIRIK GABEKO GIZARTEAK

Soziolinguistikaz arduratu diren ikertzaile guztiek erakasten dutenez, DIGLOSIRIK GABEKO GIZARTEK EZ DAGO. Demagogiak eta herria nahasi-nahiak ekarri dute diglosirik gabeko gizarte baketsuen IPUINA.

Gizarte batetan bi hizkuntza elkarren ondoan paratzen direlarik, BURRUKA dago; eta handiago edo txikiago, DIGLOSLIA dago. Eta hori, dela bide, hizkuntza horietako batentz HERIOTZA dator ezinbestean.

Beti ere: edo bertako hizkuntza



zaharra berriro NAGUSITZEN da ("normalkuntza") edo-ta kanpotik etorritako hizkuntza NAGUSITZEN da ("hizkuntza-trukea").

Hueskan, Errioxan, Erriberan, Erronkarin, Euskal Herriko hirietan ez da elebitasun baketsu, orokor eta diglosigaberik gertatu. EUSKARAREN SUNTSIERA BAZIK.

Diglosi txikia ezagutzen duten erresumetan ere (Yugoslavia, Suiza, Belgika), ESKUALDEKA zatitu dute erresuma; eta hizkuntzak ez dira hiriburuetan izan ezik, elkarren ondoan eta leku berean bizi. Eskualde bakoitzean, beraz, DIGLOSI dago; baina bertako hizkuntzaren ALDEKOA. Alegia: Flandretan esate baterako, flamenkera erabiltzea guztiz BEHARREZKOA da; baina frantsesa ez da.

Leku berean bi hizkuntzak gertatzen direlarik, ordea, BURRUKA LATZA DAGO; eta hizkuntz-orekarena eta egoera baketsuarena, eta abar, IPUIN NABARMEN agertzen dira. Bruselan, adibidez, hizkuntza-irabira latza dago; eta orekarik batera ez; mende honetako hiru laurdenetan dextente frantsestu baita Belgikako hiriburua.

Praktikan bederen, burrukarik gabeko gizarte elebidunik ez dago; eta diglosirik gabeko gizarterik ere ez. Besterik esatea, egiari ez-ikusia egitea litzateke eta, bidenabar, herri zapalduen kaltetan mintzatzea.

Eskolaren garrantzia

Pertsona helduak nekez ikas dezake hizkuntza berririk. Eta ez adimenari berari datzekion arrazoinengatik bakarrik; gizon helduak, bizibeharri erantzuten diolarik, aski lan izaten baitu. Hizkuntzak, hitz batez, haurtzaroan ikasten dira eskuarki: familian eta eskolan, Familiak hizkuntza galdu duenean, beraz, GARRANTZI EZIN HANDIAGOA HARTZEN DU ESKOLAREN PLANGINTZAK.

Diglosian bizi den gizaratean, bestalde, egiazko DIKTADURA ezartzen dute elebakarrek, elebidunen kaltetan. Euskal Herrian gaur, erdaraz denok dakigunez gero, euskaraz ez dakiten ELEBAKARREK MARKATZEN DUTE LEGEA, etengabe erdarara lerratzea behartzen gaituztela. Lehen, aldiz, gure herrian elebakarrak euskaldunak zirenean (aski da Larramendi-ren "Corografia de Guipúzcoa" irakurtzea), EUSKALDUN ELEBAKAR HAIK markatzen zuten legea; eta, ezinbestean, kanpotarrek euskaraz ikasten zuten. LEGEA ELEBAKARREK MARKATZEN DUTE.



Erdaldun elebakarrik dagoe-no, hortaz, hor egongo da diglosia; euskara erabiltzea mila aldiz, mila arrazoinengatik eta mila lekutan batera ERAGOTZI egingo zaigulako.

LEHEN-LEHENENGO URRATSA, hortaz, erdaldun elebakar horien AMAIA prestatzea da. Eta horretarako, ezinbesteko pausu gisa, EUSKADIKO ESKOLA GUZTIETAN EUSKARA SARTU BEHAR DA. Oinarritzko mintzabide gisa euskararen isuria eten ez den eskualdeetan; bigarren hizkuntza gisa gainerako eskualdeetan.

HELBURU HONEN KONTRA DAGOENAK, EUSKARAREN HERIOTZA BILATZEN DU.

Administrazioa

Askotan aipatua izan denez, Finlandia-ko jokabidea har daiten agian erudutat.

Ez daukagu hemen plana xeheki aztertzerik. Baina eginkizuna hitz gutxitara laburtu nahi izanez gero, hau esango genuke: euskararen isuria eten ez den eskualdeetan, postuak lortzeko eta "karrera egiteko", "conditio sine qua non" egin behar dugula EUSKARAZ MINTZATZEN JAKITEA. Eta hau GAURDANIXEK hasi behar da eskatzen.

Elkarte eta organizazio aber-tzaleetan

Abertzaleen eskuetan ez dauen elkarteetan poliki eta tentuz ibiltzea, gisa da: diglosiaren kontra-ko erabaki gogorak hartu beharra abertzale ez denak ez ulertzea, edo ez onartzea, ulergarri izan daiteke.

Baina gure eskuetan dauden elkarteetan DIGLOSI BETEAN SEGITZEA, gure herriarekiko SALDUKERIA BATEAN ERORTZEA DA.

Bere burua beheraxeago ez ikusteagatik, edo euskara ikasteko (ikas-teko, bai; euskaraz ikasten ez duten horietxek ingelesez majo ikasten baitute) behar den indarraldia ez egiteagatik, diglosiaren kontra GAURTXE, eta GURE AURREAN OSO BEREZIKI, hartu behar diren erabakien kontra jokatzeko duena, TRAIIDOREA DA; eta halakotzat behar da salatu eta baztertu. Euskaraz ikasi NAHI ez duena, EZ DA ABERTZALEA; eta ikas EZIN dezakeena, EZ DA ARGIA. Bere adimenarekin laburra edo bere abertzaletasunarekin eskasa ikusita, nekez utz dakiok gure herriaren etorkizuna. Aski da halakoak "karrera" ahaztea...edo-ta Madril aldera gure defentsan hastea.

Euskadik Irlandako bide hits eta eragabea hartuko ez badu, erda "politiko" eta "aberchale" guzti-atea hesten hasi behar du. ORGANIZAZIO ABERTZALEETAN, et gaur bertan; EUSKARAZ EZ DAKITEN BURUZAGIAK ORO KANPORA BURUTZATIK. Erdara Batarean bizi, Erdara Batura urteetan gure euskaldunok behartu, eta horretan gain horren jende ESKASARE eskuetan gure herria jartzeko EZ DAKITEN FUNTSIK. Beroiek SALATZEK ETA BAZTERTZEKO UNEA ETORRI DA. Zeren, inperialistek bezalaxe, baina "Euskadi" hitza ahotserabiltzen euskararen MINBIZIA zabalitzen duten TRAIIDORE horien NOIZ ARTE GURE BURU?